

PRENTSA OHARRA: 2019.09.24

Ekintzaz betetako ikasturte hasiera Etxepare Euskal Institutuan

-Udazkenean zehar, euskal kultura nazioartean sustatzeko asmoz, hamaika jaialdi eta azokatara eramango ditu Institutuak euskal musika, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura, arte eszenikoak eta arte performatiboak.

-Halaber, euskal hizkuntza munduan zehar irakatsia izan dadin, beste hainbat ekimen eramango ditu aurrera unibertsitateekin elkarlanean.

Ikasturtea intentsitate handiz hasi du Etxepare Euskal Institutuak. Euskara eta euskal kultura nazioartean zabaltzeko eta merkaturatzeko dituen sareak erabiliz, nazioarteko azoka eta jaialdietan izango da Institutua berriz ere, bere lana munduan zehar erakusteko asmoz; baita foro horietara kultur arlo ezberdinetako hamaika euskal artista, enpresa eta proposamen joan daitezzen bideak eskaini ere.

Horrez gain, Institutuak nazioarteko hainbat unibertsitateekin elkarlanean sustatutako euskara eta euskal kultur irakurletza sarea, hainbat katedra eta UPV/EHUrekin batera antolatzen duen formakuntza ikastaroa berriz ere jarriko dira martxan ikasturte berriari begira. Gainera, Katedra berri baten inaugurazioa izango da udazken honetan: Buenos Airesko unibertsitateko Amale Artetxe Katedra, Argentinan.

Euskal arte disziplinak, nazioarteko hamaika ekimenetan

Iraila, urria eta azaroan zehar, Institutuaren sustapenez, euskal musika, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura, arte eszenikoak eta arte performatiboa nazioarteko hamaika jaialdi, azoka eta ekimenetan izan edo izango dira euren emanaldiak eskaintzen eta proposamenak aurkezten.

Literaturari dagokionez, nazioarteko puntako jaialdi eta azoketan izan eta izango dira euskal idazleak. Irailaren 5etik 8ra bitartean egin zen Hay Festival Queretaro jaialdian **Leire Bilbao** idazlea izan zen, eta bi ekintzatan hartu zuen parte. Irailaren 13-15 bitartean Bruselako Fête de la BD komiki azokan, osteran, **Asisko Urmeneta** marrazkilaria izan da tailer batzuk eskaintzen.

Etorkizunera begira ere ekintza franko egingo dira literaturaren esparruan. Alde batetik, **EUNICek** (Europar Batasuneko Kultur Institutu Nazionalen sarea) Bruselan antolatzen duen Transpoesie jaialdian **Luis Garde** poeta izango da, irailaren 26an. Halaber, Poloniako Wroclaw hirian egiten den Wroclaw Short Story Festival narrazio motzen jaialdian, **Ana Malagón** idazleak hartuko du parte urri hasieran. Amerikara salto eginez, batetik, **Anjel Lertxundi** idazlea izango da Miami Book Fair azoka entzutetsuan eta, bestetik, **Eider Rodriguez** idazle eta itzultzailea, Mexikoko FIL Guadalajara azokan. Amaitzeko, Institutuak Eskozian urtean zehar antolatu duen **Scotland Goes Basque** proiektu kulturalaren baitan, urriaren 17an, Europa Transit egitasmoaren *Pafos – Mugaminak* dokumentala eskaini eta bertan agertzen den **Amets Arzallus** bertsolaria gonbidatu dute bertso-saioa eskaintzera.

Euskal **zinema eta ikus-entzunezkoak** ere protagonista izango dira nazioarteko hainbat forotan. Irailean zehar, Uruguaiako Zinematekan euskal zinema ziklo bat izan da; eta Txileko Viña del Mar hiriko Zinema Jaialdian **Fermin Muguruzaren** *Black is Beltza* filma eskaini dute. Ostera, iraila bukaeran euskal zinemak Londresera egingo du bisita; London Spanish Film Festival jaialdian, azken urteetan bezala, Euskal Leioa izeneko sail bat antolatuko baita. Urrian, bestalde, telebistaren eta eduki digitalen txanda izango da Cannesko MIPCOM azokan. Azkenik, azaroan zehar, *Dantza* filmak bira egingo du Argentinako Euskal Etxeetatik, **Telmo Esnal eta Gari Otamendiren** bisitarekin; New Yorken beste euskal zinema ziklo bat antolatuko da; eta, azaro amaieran, Mexiko Hiriko Animasivo jaialdian, Muguruzaren *Black is Beltza* eman eta **Begoña Vicario** animazio-filmaren egilea gonbidatuko dute tailer bat ematera.

Euskal **musikak** ere oihartzuna izango du munduko bazter ezberdinetan. Batetik, jada igarotako Japoniako Kanazawa Jazz Street jaialdian, *Laboa Jazz* izeneko emanaldia eskaini zuen **Iñaki Salvador** musikariak bere jazz bandarekin irailaren 14 eta 16an; eta Kataluniako Vic herrian egiten den Mercat de Música Viva de Vic azokan, halaber,

Lumi taldea izan zen emanaldia eskaintzeko hautatua. Egunotan, Bartzelonako EH Sona jaialdia ari da gertatzen: irailaren 21an hasi zen Egurra eta Kitto taldearekin, eta bi hilabete luzez euskal talde ezberdinek kataluniar hiriburuko aretoak beteko dituzte. Ostera, urri amaieran, Womex folk musika jaialdia egingo da Finlandiako Tampere hirian, eta bertara **Korrontzi** taldea joango da; eta, azaroan Sevillan egingo den Monkey Week jaialdian, **Amorante** euskal musikaria izango da. Azkenik, Scotland Goes Basque egitasmoaren baitan egingo den Europa Transit zikloaren parte gisa, **Mursego** artista gonbidatuko dute urriaren 20an Glasgow hirira; *Sarajevo – Erresilientzia Soinuak* izeneko dokumentalean agertzen dela aprobetxatuz, musika-emanaldia eskaintzera.

Amaitzeko, **arte eszenikoen** eta **performatiboen** alorretan, gertakari batzuk aipatzekoak dira. Batetik, urtero irailean egiten den Fira Tàrrega azokan, **Hortzmuga** eta **LaRutan** konpainiak eta **Itsaso Iribarren** eta **German de la Riva** artistak izan ziren euren emanaldiak eskaintzen. Arte performatiboen alorrean, azkenik, Scotland Goes Basque egitasmoaren barruan udazkenean egingo den Europa Transit ziklora, *Plovdiv – Kaleko Dantzariak* dokumentalean agertzen den **Sra Polaroiska** bikotea gonbidatu dute urriaren 11 eta 12an, eta dokumentala aurkeztu ez ezik, *Lur Away* izeneko performancea eskainiko dute.

Euskararen eta euskal kulturaren sustapena unibertsitateetan

Etxepare Euskal Institutuak ekin dio, baita ere, nazioarteko hainbat unibertsitatearekin harremanetan sustatzen duen euskara eta euskal kulturaren irakaskuntzari.

Batetik, Institutuak munduan zehar kudeatzen dituen unibertsitateetako **35 irakurletzak** martxan jarri dira beste ikasturte batez. Irakurleek, kasu gehienetan, euskara eta euskal kultur eskolak eskaintzeaz gain, hainbat kultur ekintza antolatzen dituzte ikasturtean zehar, ikasleek euskal kultura bertatik bertara bizi dezaten; eta horietatik batzuk jada hasi dira udazkeneko ekintza horiek prestatzen.

Atzerriko zentroetan irakurle izateko asmoa duten horientzat zuzendutako ikastaro bat antolatzen du baita ere Institutuak, UPV/EHUrekin elkarlanean: **Atzerriko unibertsitateetan eta goi-mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza**



ikastaroa. Udazkenero egin ohi da eta, aurtengoak, Gasteizen egingo denak, jada zabalik du izena emateko epea, urriaren 1a bitarte.

Halaber, Etxepare Euskal Institutuak **zortzi katedra** ditu abian nazioarteko izen handiko unibertsitateetan. Horietako hiruk, udazkenean zehar jorratuko dituzte euren egitarauak: New Yorkeko CUNY Unibertsitateko Bernardo Atxaga Katedrak, Massachusetts-Amherst Unibertsitateko William Douglas Katedrak eta Nevada-Renoko Unibertsitateko Jon Bilbao Katedrak, hain zuzen. Aurten, gainera, **bederatzigarren katedra bat** martxan jarriko du Etxepare Euskal Institutuak, Argentinako CONICET (Consejo Nacional de Investigaciones Científicas y Técnicas) erakundearekin duen hitzarmenari esker. Katedra horren izena **Amale Artetxe** izango da, eta urriaren 31n egingo da inaugurazioa.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus